

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila**

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren, 7379/2022 FORU AGINDUA, abenduaren 15ekoa. Honen bidez, jendaurrean jartzen baitira Bizkaiko Tokiko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako 2030eko Plan Integralaren eta Ingurumen Azterlan Estrategikoaren hasierako bertsioa.

Hondakinen politikaren ingurumen-helburu nagusia hondakinen sorrera murriztea eta kudeaketa hobetzea da. Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integralak Bizkaiko Lurralde Historikoan tokiko eskumena duten hondakinentzako politika hori garatzen du, eta, beraz, planean ezarritako neurriak prebentzio- eta zuzenketa-neurritzat hartu behar dira, tokiko eskumena duten hondakinen sorrerak ingurumenean duen ingurumen-inpaktua saihestu edo zuzentzeko.

Planak printzipio estrategiko batzuk zerrendatzen ditu, eta printzipio horien gainean oinarrituko dira haien helburuak eta kudeaketa- eta azpiegitura-jarduerak.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren azaroaren 24ko 6898/2022 Foru Aginduaren bidez, Bizkaiko 2030erako Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plan Integralaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea ebatzi zen.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, Planaren hasierako bertsio hau eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarri behar dira, gutxienez 45 egunez. Era berean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 21.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dokumentazioaren barruan ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-teknikoa sartuko da.

Aurreko guztia dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikuluan xedatutakoarekin bat, honen bidez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehena: Bizkaiko Tokiko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako 2030erako Plan Integralaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jartzea, 45 egun balioduneko epean, foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aipatutako dokumentuak eta ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-teknikoa eskuragarri daude, oro har, esteka honetan:

<https://web.bizkaia.eus/eu/herritar-gizarte-partaidetza/partaidetza-prozesuak>

Bigarrena: Epe horretan, publiko orokorrak zein interesa duten pertsona fisiko eta juridikoek alegazioak eta oharra aurkeztu ahal izango dituzte Foru Aldundiak gaitutako bulegoetan, bai eta www.bizkaia.eus webguneko partaidetza-prozesuen atalaren bidez ere. Alegazio eta ohar horiek Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dira (Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua: residuos@bizkaia.eus atala).

Hirugarrena: Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bilbon, 2022ko abenduaren 15ean.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua,
AMAIA ANTJUSTEGI ZIARDA